Dena den, une hauetan tramitatzen ari den foru arau proiektu batek aldaketak sartu ditu nekazaritza eta abeltzaintza jardueren titularrek aplikatu ditzaketen erregela berezietan, aurreko urtean izan duten eragiketa bolumena 30.000 eurotik gorakoa izan ez denean: horrelakoetan, etekin garbia kalkulatzeko, titular horiek 100eko 75 murriztuko lituzkete beren diru-sarrerak gastu justifikagaitzen kontzeptupean, jarduerari atxikitako ondare elementuen galerak eta irabaziak kanpoan utzita, eta beste ezein gasturik kendu ahal izan gabe.-

Kenkariak.

- Ustiapen ekonomikoen titular diren pertsona fisikoek sozietateen gaineko zergan aurreikusitako kenkari handienak balia ditzakete. (Ikus zerga horri buruzko kapitulua)

- (-) GASTOS (excepto pérdidas por deterioro y amortizaciones)
- (-) 35% de (INGRESOS – GASTOS)
- (+) GANANCIAS Y PÉRDIDAS ELEMENTOS AFECTOS.

Esta regla especial es también de aplicación a la actividad de alojamiento turístico agrícola que haya sido declarada actividad complementaria de la actividad agrícola, ganadera o forestal. Este extremo se acreditará mediante certificado emitido por el Departamento competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

No obstante, conviene destacar que se encuentra en tramitación un proyecto de norma foral por la que se modifican las reglas especiales aplicables por los titulares de actividades agrícolas y ganaderas cuyo volumen de operaciones en el año inmediato anterior no hubiera superado la magnitud de 30.000 euros: en este caso, el rendimiento neto se determinaría aplicando a los ingresos, a excepción de las ganancias y pérdidas de los elementos patrimoniales afectos a la actividad, un porcentaje de minoración en concepto de gastos de difícil justificación del 75 por 100, con exclusión de la deducibilidad de cualquier otro gasto.

- Deducciones.

- Las personas físicas titulares de explotaciones económicas pueden disfrutar de las más importantes deducciones previstas en el Impuesto sobre Sociedades. (Ver capítulo correspondiente a dicho Impuesto).



PFEZeko OBLIGAZIO FORMALAK

- Modalitate normala

- Merkataritzako jarduerak direnean, Merkataritza Kodeak ezarritakoaren arabera eraman behar da kontabilitatea.
- Gutxienez, Liburu Egunkaria eta Inbentario eta Balantzeen Liburua eguneratuta eraman beharko dira.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak ez dira sartzen merkataritzako jardueretan. Jarduera horiek egiten dituztenek erregistro liburu hauek eraman beharko dituzte:
 - Salmenta edo sarreraren erregistro liburua
 - Erosketa eta gastuen erregistro liburua
 - Inbertsio ondasunen erregistro liburua.
 - Kutxako liburua

Hala ere, kontabilitatea Merkataritza Kodeak ezarritakoaren arabera daramaten zergadunek ez dute erregistro libururik eraman beharko.

- Modalitate erraztua

Aurreko puntuan zehaztutako erregistro liburuak (salmentak edo sarrerak; erosketak eta gastuak; inbertsio ondasunak; kutxa) eraman beharko dira, horien orde ez baldin bada Merkataritza Kodeko kontabilitatea eramaten.

Dena den, gorago aipatu dugun foru arau proiektuak, une hauetan tramitatzen ari denak, ezartzen du ezen, nekazaritza eta abeltzaintza jardueren titularrek aurreko lehen urtean izan duten eragiketa bolumena ez bada izan 30.000 euro baino handiagoa, ez direla behartuta egongo aurreko apartatuan aipatu diren erregistro liburuak eramatera, salbu eta salmenten eta sarreraren erregistro liburua. Alabaina, behartuta egongo dira egindako eta jasotako fakturak zenbakituta gordetzera, daten arabera ordenatuta eta hiruhilekotan banatuta.

OBLIGACIONES FORMALES EN EL IRPF

- Modalidad normal

- En actividades de carácter mercantil hay que llevar la contabilidad ajustada a lo dispuesto en el Código de Comercio.
- Como mínimo, habrá que mantener al día el Libro Diario y el Libro de Inventarios y Balances.
- Las actividades de agricultura y ganadería no tienen consideración de actividades de carácter mercantil. En estos casos, estarán obligados a llevar los siguientes libros registro:
 - Libro registro de ventas o ingresos
 - Libro registro de compras y gastos
 - Libro registro de bienes de inversión
 - Libro de caja

No obstante, los contribuyentes que lleven contabilidad de acuerdo con el Código de Comercio no estarán obligados a llevar libros registro.

- Modalidad simplificada

Se exige la llevanza de los libros registro a los que se ha hecho referencia en el apartado anterior (ventas o ingresos; compras y gastos; bienes de inversión; caja), salvo que se sustituya por la contabilidad del Código de Comercio.

No obstante, apuntar que en el proyecto de norma foral que se encuentra en tramitación al que se ha hecho alusión anteriormente, se establece que los titulares de actividades agrícolas y ganaderas cuyo volumen de operaciones en el año inmediato anterior no hubiera superado la magnitud de 30.000 euros no estarán obligados a llevar los libros registro mencionados en el apartado anterior, a excepción del libro registro de ventas e ingresos. Además, estarán obligados a conservar numeradas, por orden de fechas y agrupadas por trimestres, las facturas emitidas y las recibidas.



2.3. SOZIETATEEN GAINKO ZERGA

EZAUGARRIAK

Merkataritzako sozietateen (sozietate mugatuen, sozietate anonimoen, kooperatiben, eraldaketarako nekazaritza sozietateen...) eta zergari lotutako gainerako entitateen (fundazioen, elkarteen, mutualitateen...) mozkina zergapetzen duen zuzeneko zerga bat da.

Sozietate zibilak eta ondasun erkidegoak ez daude zerga honi lotuta.

Merkataritzako sozietate orok du Sozietate Zerga (200 eredua) aurkezteko obligazioa, JEZeant alta emanda ez egon arren.

Portzentaje bat ordaintzen da ekitaldian lortutako mozkinaren gainean, entitate motaren arabera aldatzen dena. 2018rako, %28koa da oro har, eta enpresa txikiarentzat %24koa.

Dena den, une hauetan tramitatzen ari den foru arau proiektu batek tasa horiek murrizten ditu. Horrela, 2018-01-01etik 2018-12-31ra bitartean hasitako zergaldietan %26 eta %22 aplikatuko lirateke, eta 2019-01-01etik aurrera hasitakoetan, berriz, %24 eta %20, hurrenez hurren.

OHARRA: sozietatea desegiten bada likidatu gabe, gogoan izan behar da 200 eredua aurkezten jarraitu behar dela.

Sozietatea likidatzen bada, 200 eredua aurkeztu beharko da hurrengo urtean, eta hori izango da aurkeztuko den azkeneko urtea.

SALBUESPENAK

Sozietateen zergan (SZ) PFEZerako aurreikusita dauden salbuespen berak aurreikusi dira, PFEZaren ataleko 2.4 puntuan (Europako FEAGA-NBEF, FEDER-LGENF eta FEP-EAF laguntzak) eta 2.6 puntuan (basogintzako ustiapen batzuentzako diru laguntzak) zehaztutakoak izan ezik:.

GEHIEN ERABILTZEN DIREN KENKARIAK (SZ ETA PFEZ)

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunei aplikatzen zaizkie, sozietateen gaineko zergaren nahiz PFEZaren aitortpena egiten dutenei, berdin dio zein modalitate aplikatzen duten jardueren ekonomikoen etekina deklaratzeko (normala edo erraztua).

Aktibo ez korrante berrietan egindako inbertsioen kenkaria: ekitaldian egindako inbertsioen %10a edo %5a deduzitu ahal izango da (printzipioz muga batzuetatik gorako inbertsioa izan behar du).

Enplegua sortzeagatikoa kenkaria: 4.900 euro lan kontratu mugagabearekin dagoen pertsona bakoitzeko eta 4.900 euro gehiago lan merkatuan sartzeko

2.3. IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES

CARACTERÍSTICAS

Es un impuesto de carácter directo que grava el beneficio de las sociedades mercantiles (Sociedades Limitadas, Sociedades Anónimas, Cooperativas, Sociedades Agrarias de Transformación...) y demás entidades que estén sujetas a él (Fundaciones, Asociaciones, Mutuas...).

No están sujetas a este impuesto las sociedades civiles ni las comunidades de bienes.

Toda sociedad mercantil tiene obligación de presentar el Impuesto de Sociedades (modelo 200), aunque no esté dada de alta en el IAE.

Consiste en pagar un porcentaje sobre el beneficio obtenido en el ejercicio, que varía según la clase de entidad que sea. Para el año 2018: con carácter general, el 28% y las microempresas y pequeñas empresas, el 24%.

No obstante, se encuentra en tramitación un proyecto de norma foral por la que los citados tipos se reducirían, siendo del 26% y 22% en los periodos impositivos iniciados entre el 1-1-2018 y el 31-12-2018 y del 24 y 20% en los periodos impositivos iniciados a partir del 1-1-2019, respectivamente.

NOTA: en caso de disolución sin liquidación de la sociedad, cabe recordar que habrá que seguir presentando el modelo 200.

En caso de liquidación de la sociedad, habrá que presentar el modelo 200 al año siguiente y éste será el último año en que se presente.

EXENCIONES

En el IS existen las mismas exenciones previstas en el IRPF, salvo las relacionadas con los números 2.4 (ayudas europeas FEAGA, FEADER y FEP) y 2.6 (subvenciones a determinadas explotaciones forestales) en el apartado correspondiente del IRPF.

DEDUCCIONES MÁS UTILIZADAS (IS E IRPF)

Se aplican tanto a contribuyentes del Impuesto sobre Sociedades como del IRPF que ejerzan actividades económicas, cualquiera que sea la modalidad (normal o simplificada) aplicada para declarar sus rendimientos de actividades económicas.

Deducción por inversiones en activos no corrientes nuevos: se podrá deducir el 10% o el 5%, según los casos, de las inversiones realizadas en el ejercicio (en principio la inversión debe ser superior a ciertos límites).

Deducción por creación de empleo: 4.900 euros por persona con contrato laboral indefinido y 4.900 euros adicionales por persona con contrato laboral



zailtasun berezia duten kolektiboetakoren batekoa bada eta lan kontratu mugagabearekin badago.

Dena den, une hauetan tramitatzen ari den foru arau proiektu batek kenkaria aldatzen du, eta orain urteko soldata gordinaren %25ekoa izango litzateke, 5.000 euroko mugarekin, lan kontratu mugagabearekin kontratatutako pertsona bakoitzeko. Kenkaria aplikatzeko, ezinbestekoa litzateke soldata kontratazioaren unean indarrean dagoen lanbidearteko gutxieneko soldata baino %70 handiagoa izatea. Kontratatzen den pertsona lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetakoa bada, kenkaria bi halakoa izango da.

SOZIETATEEN GAINKO ZERGA KO KONTABILITATEA

Merkataritza Kodeak agindutakoaren arabera eraman behar dute kontabilitatea sozietateek.

Urteko kontuak batzar nagusiak onartu beharko ditu, kontuak formulatu ondorengo hiru hilabeteen barruan.

Onartu eta hilabete igaro aurretik, kontu horiek Merkataritza Erregistroan aurkeztu behar dira, publikoak izan daitezzen, batzar orokorrak urteko kontuak onartzeko eta emaitzak aplikatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiriarekin batera.

Enpresek ez dute kontuen auditoria egiteko obligaziorik, ETEen KPO eramaten badute edo balantze laburtua aurkez badezakete.

2.4. LEHENTASUNEZKO NEKAZARITZAKO USTIATEGIENTZAKO ETA NEKAZARI GAZTEENTZAKO ONURA FISKALAK

Hainbat onura fiskal daude hainbat zergatan (OEEJDZ, PFEZa, SZ eta ODZ) lehentasunezko deklaraturako nekazaritza ustiategiekin eta nekazari gazteekin, zuzenean edo zeharka, lotura dutenak.

Lehentasunezko nekazaritza ustiategiak.

Lehentasuneko ustiategia dela egiaztatu egin beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez edo Nekazaritza Ministerioko Nekazaritza Ustiategien Katalogo Orokorrean sartuta dagoela erakutsiz.

Aurreikusita dauden zerga onuren artean, salbuespenak eta murrizketak ezarri dira hainbat tribututan, lehentasunezko ustiategiak edo lurak eskualdatzen, erosten edo trukutzen direnerako, egindako eskuratzeen ondorioz ustiategia lehentasunezko izatera pasatzen bada. Era berean, badaude beste onura batzuk ere, lehentasunezko ustiategietan hobekuntzak egiteko edo lehentasunezko ustiategi izatera iristeko eskuratzeak egiteko maileguak eratzen, aldatzen edo kitatzen direnerako.

indefinido que se encuentre en alguno de los colectivos con especial dificultad de inserción en el mercado de trabajo.

No obstante, se encuentra en tramitación un proyecto de norma foral por la que se modificaría esta deducción que pasaría a ser del 25% del salario anual bruto por cada persona contratada con contrato laboral indefinido, con un límite de 5.000 euros. Para aplicar la deducción, sería imprescindible que el salario fuera superior al salario mínimo interprofesional vigente en el momento de la contratación, incrementado en un 70%. La deducción es del doble cuando la persona contratada se encuentre incluida en alguno de los colectivos de especial dificultad de inserción en el mercado de trabajo.

CONTABILIDAD EN EL IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES

Las sociedades están obligados a llevar la Contabilidad de acuerdo con el Código de Comercio.

Las cuentas anuales deberán ser aprobadas por la junta general en los tres meses siguientes a la formulación de las mismas.

Dentro del mes siguiente a su aprobación deberán presentarse en el Registro Mercantil para que sean públicas, junto con una certificación de los acuerdos de la junta general de aprobación de las cuentas anuales y de aplicación de los resultados.

La empresa no estará obligada a auditar sus cuentas siempre y cuando pueda acogerse al PGC de PYMES o presentar un balance abreviado.

2.4. BENEFICIOS FISCALES RELACIONADOS CON EXPLOTACIONES AGRARIAS PRIORITARIAS Y CON AGRICULTORES JÓVENES.

Existe una serie de beneficios fiscales que afectan a diferentes tributos (ITPAJD, IRPF, IS e ISD) relacionados, directa o indirectamente, con explotaciones agrarias declaradas prioritarias y con jóvenes agricultores.

Explotaciones agrarias prioritarias.

La condición de explotación prioritaria se acreditará mediante certificado emitido por el Departamento competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa o mediante la inclusión en el Catálogo General de Explotaciones Agrarias del Ministerio de Agricultura.

Entre los diversos beneficios tributarios contemplados se establecen exenciones o reducciones en diferentes figuras tributarias cuando se transmitan, adquieran o permuten explotaciones prioritarias o terrenos cuando, con motivo de las adquisiciones efectuadas, la explotación alcance la consideración de prioritaria. Asimismo, se contemplan beneficios en relación con la constitución, modificación o cancelación de préstamos para realizar mejoras en explotaciones prioritarias o realizar adquisiciones que permitan alcanzar tal consideración.

Jóvenes agricultores.



Nekazari gazteak.

Nekazari gaztetzat hartzen dira nekazaritzan diharduten edo jardun nahi duten hemezortzi eta berrogei urte bitarteko pertsonak (hemezortzi urte eginda eta berrogei urtera iritsi gabe).

Lehentasunezko ustiatagietan bezala, hainbat onura fiskal ezarri dira hainbat zergatan salbuespenak ezartzeko edo oinarri ezargarria murrizteko, gazte horiek lehentasunezko ustiatagi baten lehen instalazioa egiteko nekazaritzako ustiatagiak edo finkak eskualdatzen eta eskuratzen dituztenerako eta baita hipoteka maileguak eratzen, aldatzen edo kitatzen dituztenerako ere.

Se considera joven agricultor la persona que haya cumplido los dieciocho años y no haya cumplido cuarenta años y ejerza o pretenda ejercer la actividad agraria.

Al igual que en el caso de las explotaciones prioritarias, se establecen varios beneficios fiscales, en forma de exenciones y reducciones en la base imponible de diferentes impuestos, aplicables en la transmisión y en la adquisición de explotaciones agrarias o fincas para la primera instalación de una explotación prioritaria por parte estos jóvenes agricultores, así como en la constitución, modificación o cancelación de préstamos hipotecarios.



3. ATXIKIPENAK ETA ORDAINKETA ZATIKATUAK

3.1. PFEZen ORDAINKETA ZATIKATUAK (130 EREDUA)

PFEZa aurreratzea da. Horrela, hiru hilabetetik behin diru sarrera bat egiten da Ogasunean, gero deskontatzeko zerga deklaratzenean.

Hala ere, abeltzaintzako edo basogintzako jarduera ekonomikoak egiten dituztenek ez daukate ordainketa zatikatu horiek egin beharrik baldin eta aurreko urtean sarreraren %50ean gutxienez atxikipena egin bazitzaien.

- Lehen aipatutako zuzeneko zenbatespenaren metodoko modalitate guztietan aplikatzen da.
- Oro har, azken-aurreko urteko etekinaren %5a izango da.
- Azken-aurreko urtean jarduerarik ez bazen izan edo etekin garbia positiboa izan ez bazen, hiruhilekoko salmenta bolumenaren edo sarreraren %1a izango da.
- Jarduera hasten den ekitaldian, hiruhilekoko salmenta bolumenaren edo sarreraren %1a.

3.2. ATXIKIPENA JASATEKO OBLIGAZIOA (PFEZa)

Jarduera ekonomiko jakin batzuk egiten dituztenek, horien artean nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak, atxikipena jasan behar dute beste enpresari edo profesional batzuegandik diru-sarrerak jasotzen dituztenean.

- Oro har, fakturaren bitartez betetzen da obligazio hori. Horrela, zergadunak entregatutako ondasuna edo emandako zerbitzua kobratzeko egin behar duen fakturan adieraziko du atxikipena jasan behar duela, eta bezeroak zuzenean ordainduko dio fakturaren zenbatekoa, atxikipenaren zatia kenduta, eta atxikipena zuzenean sartuko du Ogasunean.
- Hala ere, BEZaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezira bildutako titularrak direnean, bezeroak egin behar du jasotako ondasun eta zerbitzuen ordainagiria eta ordainagiri horretan zehaztu behar du, besteak beste, egindako atxikipena (oinarri ezargarria eta oroharreko konpentsazioa batuta kalkulatu) eta kopia bat emango dio hornitzaileari.
- Aplikatu beharreko atxikipenak:
 - Txerri gizentze eta hegazti hazkuntzako abeltzaintza jarduerak: fakturaren zenbatekoaren % 1.
 - Nekazaritzako jarduerak eta abeltzaintzako gainerako jarduerak: fakturaren zenbatekoaren % 2.
 - Basozaintzako jarduerak: fakturaren zenbatekoaren % 2.

3. RETENCIONES Y PAGOS FRACCIONADOS

3.1. PAGOS FRACCIONADOS DEL IRPF (MODELO 130)

Consiste en el adelanto del IRPF. Así, cada trimestre hay que hacer un ingreso a Hacienda que será descontado cuando se declare el Impuesto.

No obstante, los contribuyentes que ejerzan actividades económicas, ganaderas o forestales no están obligados a realizar tales pagos fraccionados cuando el año anterior al menos el 50% de los ingresos fueron objeto de retención.

- Se aplica en cualquiera de las modalidades del método de estimación directa antes mencionados.
- Con carácter general, será el 5% del rendimiento del penúltimo año anterior.
- Si el penúltimo año anterior no se ejerció actividad o el rendimiento neto no fue positivo, será el 1% del volumen de ventas o ingresos del trimestre.
- En el ejercicio de inicio de la actividad, el 1% del volumen de ventas o ingresos del trimestre.

3.2. OBLIGACIÓN DE SOPORTAR RETENCIÓN (IRPF)

Aquellos que llevan a cabo determinadas actividades económicas, entre ellas las actividades agrícolas, ganaderas y forestales, deben soportar retención cuando perciban sus ingresos de otros empresarios o profesionales.

- Con carácter general, la forma de hacer efectiva esta obligación es a través de la factura que deberá emitir la persona que entrega el bien o presta el servicio. Así, en la factura el contribuyente indicará que debe soportar la retención, y el cliente le abonará el importe total de la factura, salvo la retención, que la ingresará directamente en Hacienda.
- Sin embargo, en el caso de titulares de actividades acogidas al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca del IVA, será el cliente quien deberá expedir un recibo por dichas operaciones, en la que se especificará, entre otros aspectos, la retención practicada (para cuyo cómputo se considerará la suma de la base imponible más la compensación a tanto alzado), y entregará una copia al proveedor.
- Tipos de retención a aplicar:
 - Actividades ganaderas de engorde de porcino y avicultura: 1% del importe de la factura.
 - Actividades agrícolas y restantes actividades ganaderas: 2% del importe de la factura.
 - Actividades forestales: 2% del importe de la factura.



- Horrela aplikatutako atxikipena jarduera egiten duenaren PFEZetik deskontatuko da gero, urte horri dagokion errenta aitortzen egiten duenean.

3.3. ATXIKITZEKO ETA ATXIKIPENEN AITORPENAK AURKEZTEKO OBLIGAZIOA (PFEZ ETA SZ)

Honako kasu hauetan dago ordaindu beharreko zenbatekoaren zati bat atxikitze obligazioa:

Langile enplegatuek (PFEZ ETA SZ)

Atxikitze portzentajeen taularen arabera, urteko ordainsariak eta seme-alaba kopurua kontuan hartuta. Alabaina, urtebetetik beherako kontratuen kasuan, gutxieneko atxikipena %2 da.

Inguruabar hori espresuki adierazi behar da zentsu aitortzean (036 eredu).

Errentamenduen atxikipena (PFEZ ETA SZ)

Errentan hartutako hiri ondasun higiezinak jarduera bat egiteko erabiltzen denean, errentariak errentamenduen %19a atxiki behar da dio errentatzaileari, kasu hauetan izan ezik:

- Enpresak enplegatuentzako errentan hartutako etxebizitzak direnean.
- Ordaintzen den errenta urtean 900 eurotik gorakoa ez denean.
- Errentatzailea JEZean alta emanda dagoenean 861 ondasun higiezin errentamenduko epigrafeetakoren batean eta errentan emandako finka guztien balio katastrala zifra hauek baino handiagoa denean:
 - 1.502.525 euro etxebizitzak badira.
 - 858.585 euro lokal industrialak edo bestelakoak badira.

Negoio errentariak %19 atxiki behar da dute errentatzaileari ordaindutako kontraprestaziotik.

Inguruabar hori espresuki adierazi behar da zentsu aitortzean (036 eredu).

- La retención así aplicada será descontada finalmente del IRPF de quien ejerce la actividad, en la declaración correspondiente a ese año.

3.3. OBLIGACIÓN DE RETENER Y PRESENTAR DECLARACIONES DE RETENCIONES (IRPF E IS)

Existe obligación de retener parte del importe a pagar en los siguientes casos:

Personas empleadas (IRPF E IS)

Conforme a la tabla de porcentajes de retención en función de la retribución anual y el número de hijas e hijos. Existe, no obstante, una retención mínima del 2% en el caso de contratos de duración inferior al año.

Esta circunstancia habrá que hacerla constar expresamente en la declaración censal (modelo 036).

Retenciones de arrendamientos (IRPF E IS)

Los **arrendatarios de inmuebles urbanos en los que se ejerce actividad** tendrán obligación de retener el 19% del importe del arrendamiento del arrendador salvo en los siguientes casos:

- Cuando se trate de arrendamientos de vivienda de empresa para sus empleados.
- Cuando las rentas satisfechas no superen los 900 euros anuales.
- Cuando el arrendador esté dado de alta en el IAE en alguno de los epígrafes 861 de arrendamiento de inmuebles y el valor catastral del conjunto de fincas en arrendamiento sea superior a:
 - 1.502.525 euros si se trata de viviendas.
 - 858.585 euros si se trata de locales industriales u otros.

Los **arrendatarios de negocio** tendrán obligación de retener el 19% del importe de la contraprestación pagada al arrendador.

Esta circunstancia habrá que hacerla constar expresamente en la declaración censal (modelo 036).



Dibidenduak banatzeagatiko atxikipenak (SZ)

Era berean, bazkideei dibidenduak banatzen dizkieten enpresek, dibidenduen %19 atxikitze obligazioa izango dute.

ATXIKIPENEN EREDUAK ETA INFORMAZIOA EMATEKOAK:

Hiru hilabeteko atxikipenen ereduak.

Hiruhilekoan zehar egindako atxikipenak ogasunean sartzeko hiru hilabeteko ereduak:

- 110: Langileen eta profesionalen atxikipenak.
- 115: Kapital higiezinaren atxikipenak.
- 123: Kapital higigarriaren atxikipenak: dibidenduak.

Epeak: hilaren 25ean, urtarrilean, apirilean, uztailean eta urrian.

Atxikipenen urteko laburpena

Urtean zehar egindako atxikipenen informazioa emateko ereduak:

- 190: Langileen eta profesionalen atxikipenen urteko laburpena.
- 180: Kapital higiezinaren atxikipenen urteko laburpena.
- 193: Kapital higigarriaren atxikipenen urteko laburpena: dibidenduak.

Epea: urtero, urtarrilaren 1etik 30era bitartean, aurreko urtean ordaindutako errentei dagokienez.

OHARRA: jarduera amaituz gero, kontuan izan hurrengo urtean ere aurkeztu beharko dela.

347: Hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpena.

Hornitzaile edo bezeroekin egindako salerosketak deklaratzeko eredu informatiboa, hornitzaile edo bezero horietako bakoitzarekin urtean zehar egindako salerosketak, eragiketa guztiak batuta, 3.005,06 eurotik gorakoan direnean.

Hala ere, BEZa nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen bereziaren arabera tributatzen duten jardueren titularrek ez daukate eredu hori aurkeztu beharrik, nola eta ez diren faktura egitea eskatzen duten eragiketak.

Eta BEZa erregimen berezi erraztuaren bidez tributatzen duten jardueren titularrek, 347 eredu aurkeztu beharko dute. Eredu horretan deklaritzen dira bezeroei fakturatuko eragiketak eta hartutako fakturen erregistro liburuan jasotako ondasun eta zerbitzu eskuratzak.

Retenciones por reparto de dividendos (IS)

Igualmente, las empresas que reparten dividendos a sus socios tendrán obligación de retener el 19% del importe del dividendo.

MODELOS DE RETENCIONES E INFORMATIVOS.

Modelos trimestrales de retenciones.

Modelos trimestrales de ingreso de las retenciones practicadas durante el trimestre:

- 110: Retenciones de trabajadores y profesionales.
- 115: Retenciones de capital inmobiliario.
- 123: Retenciones de capital mobiliario: dividendos.

Plazos: 25 de enero, abril, julio y octubre.

Resúmenes anuales de retenciones

Modelos informativos sobre las retenciones practicadas durante el año:

- 190: Resumen anual de retenciones de trabajadores y profesionales.
- 180: Resumen anual de retenciones de capital inmobiliario.
- 193: Resumen anual de retenciones de capital mobiliario: dividendos.

Plazo: Entre el 1 y el 30 de enero de cada año en relación con las rentas satisfechas en el año anterior.

NOTA: en caso de cese, recordar que al año siguiente habrá que presentar.

347: Declaración anual de operaciones con terceras personas.

Es un modelo informativo en el que, con carácter general, se declaran aquellas compras o ventas que superen los 3.005,06 euros durante el año, con la misma empresa proveedora o empresa cliente, sumado el total de operaciones realizadas.

No obstante, los titulares de actividades que tributen en IVA por el régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca, no tienen que presentar el modelo, salvo en el caso de operaciones por las que emitan factura.

Y los titulares de actividades que tributen en IVA por el régimen especial simplificado deberán presentar el modelo 347 declarando tanto las operaciones por las que emitan factura como las adquisiciones de bienes y servicios anotadas en el libro registro de facturas recibidas.



Epea: urtero, otsailean, aurreko urtean egindako eragiketei buruz.

OHARRA: jarduera amaituz gero, gogoan izan jarduera amaitu arte egindako eragiketak ekitaldi horri dagokion 347 ereduan deklaratu behar direla, eta eredu hori hurrengo urtean aurkeztuko dela.

Plazo: mes de febrero de cada año en relación con las operaciones realizadas en el año anterior.

NOTA: en caso de cese, recordar que, las operaciones realizadas hasta dicho cese deben ser, en su caso, declaradas en el modelo 347 del ejercicio, que se presentará al año siguiente.



4. TRAMITAZIO TELEMATIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzu telematikoak eskaintzen ditu herritar guztientzat oro har, baina nahitaez erabili beharrekoak direnak hurrengo apartatuan zehazten diren baldintzak betetzen dituztenentzat.

Zerbitzu telematikoetan sartzeko, norberaren identitatea frogatu behar da "Identifikazio telematiko" apartatuan zehazten diren moduetako baten bidez, edo hirugarren bati eman dakioket baimena ordezkari gisa jardun dezan.

Atari hauen bidez sar daiteke Interneten eskaintzen diren zerbitzuetan:

- Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunea: <http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna>.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa: <https://www.gfaegoitza.eus>.
- Internet bidezko zerbitzu eta izapideen ataria: Gipuzkoataria. www.gipuzkoa.eus/ataria webgunetik du sarbidea.

Sarbide horien bitartez, segurtasun, erosotasun eta legezko balio osoz egin daitezke hainbat eta hainbat eragiketa, besteak beste:

- Ordainketak egin eta ordainketak geroratzea eta zatikatzea eskatu.
- Informazio pertsonalizatua kontsultatu, ordainketak, fakturak, aurkeztutako aitortpenak, itzulketen egoera, etab. ikusteko.
- Ziurtagiriak eskatu.
- Idazkiak aurkeztu erregistro elektronikoaren bidez.

Bestalde, <https://zergabidea.gipuzkoa.eus> helbidean, Zergabidea plataforman sartu daitezke aitortpenak eta idatziak prestatu eta aurkezteko. Hodeian dagoenez, plataforma berri hori ez da instalatu behar, eta aukera ematen du bai aitortpenen zirriborroak prestatzeko bai aitortpen horiek aurkezteko. Orobat, haren bitartez, posible da zerga kudeaketako zerbitzuetara zuzendutako edozein idazki mota aurkeztea (eskaerak, errekurtsioak, alegazioak, errekerimenduen erantzuna...). Pixkanaka-pixkanaka, zerga eredu guztiak sartuko dira plataforma berrian. Gainera, zerbitzuak eta tramiteak internet bidez egiteko ataritik ere (lehen aipatu dugun Gipuzkoataritik) Zergabidean sartu daitezke.

AITORTPENAK TELEMATIKOKI AURKEZTEKO OBLIGAZIOA

2017ko urriaren 2tik aurrera, jarraian aipatzen diren zergapekoak behartuta daude bitarteko elektronikoak erabiltzera bai zerga alorreko tramite eta komunikazioak egiteko (aitortpenak aurkeztea barne), bai komunikazio eta jakinarazpenak jasotzeko:

4. TRAMITACIÓN TELEMÁTICA

La Diputación Foral de Gipuzkoa ofrece servicios telemáticos para toda la ciudadanía en general, pero cuya utilización es de obligado cumplimiento para quienes cumplan ciertas condiciones que se especifican en el siguiente apartado.

Para acceder a los servicios telemáticos es necesario acreditar la identidad mediante alguno de los medios que se detallan en el apartado “Identificación telemática”, o bien autorizar a terceras personas para que la representen.

Se podrá acceder a los servicios ofrecidos por internet, a través de los siguientes portales:

- La web del Departamento de Hacienda y Finanzas: <http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna>.
- La sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa <https://www.gfaegoitza.eus>.
- El portal de servicios y trámites por internet Gipuzkoataria, la que se podrá acceder a través de la página www.gipuzkoa.eus/ataria.

A través de ellos, con total seguridad, comodidad y plena validez legal, se podrán realizar distintas operaciones, entre otras:

- Realizar pagos y solicitar aplazamientos o fraccionamientos.
- Consultar información personalizada sobre la cuenta de pagos, facturas, declaraciones presentadas, estado de las devoluciones, etc.
- Solicitar certificados.
- Presentar escritos por el registro electrónico.

Por otra parte, se podrá acceder a la plataforma de elaboración y presentación de declaraciones y escritos Zergabidea a través del portal <https://zergabidea.gipuzkoa.eus>. Esta nueva plataforma, que no necesita instalación por estar situada en la nube, permitirá elaborar borradores de sus declaraciones y presentar dichas declaraciones. Así mismo, permitirá elaborar y presentar cualquier tipo de escrito dirigido a los servicios de gestión tributaria (solicitudes, recursos, alegaciones, contestación a requerimientos...). La nueva plataforma integrará progresivamente todos los modelos tributarios. Existe además acceso a Zergabidea a través del portal de servicios y trámites por internet Gipuzkoataria anteriormente citado.

OBLIGACIÓN DE PRESENTAR DECLARACIONES POR VÍA TELEMÁTICA

Desde el 2 de octubre de 2017 estarán obligados a efectuar los trámites y comunicaciones de carácter tributario, incluida la presentación de declaraciones, y a recibir las comunicaciones y notificaciones por medios electrónicos los siguientes obligados tributarios:



- Pertsona juridikoak.
- Nortasun juridikorik gabeko entitateak.
- Diharduten lanbidean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, jarduera hori dela-eta administrazio publikoekin egin behar dituzten izapide eta jarduketetarako. Kolektibo horretakotzat joko dira beti notarioak, jabetzaren erregistratzaileak eta merkataritza-erregistratzaileak.
- Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartua dagoen interesdun baten ordezkari direnak.
- Administrazio publikoetako enplegatuek enplegatu publiko izateagatik administrazioekin egiten dituzten izapide eta jarduketetarako, administrazio bakoitzak erregelamenduz zehazten duen eran.
- Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak, establezimendu iraunkor bidez jarduten dutenean, eta, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga arautzen duen abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak 24.2 eta 38. artikuluetan aipatzen dituen kasuetan daudenean.
- Ordezkari profesional diren pertsonak edo entitateak, beren izenean zein haien ordezkatuenean jarduten dutenean, baita ordezkatu horiek aurreko apartatuetan sartuta ez daudenean ere.

IDENTIFIKAZIO TELEMATIKOA

Herritarrek Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuekin ezartzen dituzten harremanetan beren burua identifikatzeko, bi bide erabil ditzakete: pasahitz operatiboa edo sinadura elektronikoa balioztatua.

Pasahitz operatiboa:

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bakarrik erlazionatzeko balio du.

Sinadura elektronikoa balioztatua:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du sinadura elektronikoa onartzen.
- Besteak beste, ziurtagiri digital hauek onartzen dira:
 - Nortasun agiri elektronikoa (Gobernuaren Ordezkariordetzan jaulkitzen dute)
 - B@kq (besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundian eskatu daiteke)
 - IZENPErenak (harremanetarako telefonoa: 902 542 542)
 - CAMERFIRMArenak (harremanetarako telefonoa: 902 361 207)
 - Moneta eta Zigiluen Fabrika Nazionala (Fabrica Nacional de Moneda y Timbre).

- Las personas jurídicas.
- Las entidades sin personalidad jurídica.
- Quienes ejerzan una actividad profesional para la que se requiera colegiación obligatoria, para los trámites y actuaciones que realicen con las Administraciones Públicas en ejercicio de dicha actividad profesional. En todo caso, dentro de este colectivo se entenderán incluidos los notarios y registradores de la propiedad y mercantiles.
- Quienes representen a un interesado que esté obligado a relacionarse electrónicamente con la Administración.
- Los empleados de las Administraciones Públicas para los trámites y actuaciones que realicen con ellas por razón de su condición de empleado público, en la forma en que se determine reglamentariamente por cada Administración.
- Los contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes con establecimiento permanente y en los supuestos a que se refiere el artículo 24.2 y 38 de la Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.
- Las personas o entidades que tengan reconocida la condición de representante profesional, cuando actúen tanto en nombre propio como en el de alguno o algunos de sus representados, aun cuando estos últimos no se encuentren incluidos en las letras anteriores.

IDENTIFICACIÓN TELEMÁTICA

La forma de acreditación de la identidad en las relaciones que la ciudadanía establece con los departamentos que integran la Diputación Foral de Gipuzkoa, puede ser mediante clave operativa o firma electrónica reconocida.

Clave operativa:

- Es un medio válido para relacionarse únicamente con la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Firma electrónica reconocida:

- La Diputación Foral de Gipuzkoa no dispone de firma electrónica propia.
- Se reconocen, entre otros, los siguientes certificados digitales:
 - El DNI electrónico (se expide en la Subdelegación del Gobierno)
 - B@kq (se puede solicitar, entre otros sitios, en la Diputación Foral de Gipuzkoa)
 - Los de IZENPE (teléfono de contacto 902 542 542)
 - Los de CAMERFIRMA (teléfono de contacto 902 361 207)
 - La Fábrica Nacional de Moneda y Timbre

- Aipaturikoez gain, beste ziurtagiri digital batzuk ere onartzen dira. Ondorengo helbidean, zerrenda osoa jaso da: <https://www9.gipuzkoa.eus/WAS/HACI/WATGipuzkoatariaWEB/jsps/pops/pops/popupCertificados.jsp>.

ZERBITZUAK ETA TRAMITEAK INTERNET BIDEZ. SARTZEKO ADIBIDEAK

Gipuzkoataria internet bidezko zerbitzu eta tramiteen ataria erabilita era askotako eragiketak egin daitezke.


Pasahitz operatiboa edo sinadura elektronikoa balioztatua erabiliz sartu daiteke atarian, lehenago ikusi dugunez.

Hona hemen gehien erabiltzen diren tramiteak:

Zerga aitortpenen aurkezpena

Gipuzkoatariaren barruan zaudela, “Ogasuna eta Finantzak” hautatu behar da.

Ondoren, “zerga aitortpenak” atalean, aukeratu “aitortpen telematikoak” tramitea, eta egin morroiak esaten dizuna.



Gipuzkoako Foru Aldundia Euskara Castellano

Tramiteak eta zerbitzuak Internet bidez
Gipuzkoataria

EGOITZA ELEKTRONIKOA

Giltza Idazki Desktop On-line laguntz

● **SARRERAKO PANELA: AUTENTIFIKAZIOA**

Hautatu Gipuzkoatariaren sartzeko modua

Autentifikatzeko zerbitzu hau herritarrei, erakundeiei edota beren ordezkari baimenduei zuzenduta dago. Datuak babesteko eta zure pribatasuna bermatzeko, nahitaezkoa da zure burua identifikatzea. Gainera, horrek aukeratzen dituzun zerbitzu eta tramiteak betetzeko prozesua ere erraztuko du.

Pasahitz operatiboa

Sartu ondoko datuok:

Identifikazio zenbakia:

Egiaztapen pasahitza:

7 1 5 6 0
2 3 8 4 9 Ezabatu

[Pasahitza ahaztu al zaizu?](#)

Ados

Giltza

Identifikazio mota jasagarriak
* Ziurtagiria
* B@KQ
[Non eta nola eskatu B@kQ?](#)

[Onartutako ziurtagirien zerrenda ikusi](#)
[Beharkizun teknikoak](#)

Ados

● [Arazoak Gipuzkoatarira sartzeraoan?](#)

Aukera nagusiak

- > Sarrerako panela: autentifikazioa
- > Identifikaziorik behar ez duten zerbitzuak eta tramiteak
- > Legezko ordezkaria moduan aritzeko alta eskaera

Zerbitzu honi buruzko informazioa

